

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#) > **Kolonbian bahitu zuten donostiarraren testigantza**

CULTURA

Kolonbian bahitu zuten donostiarraren testigantza

«Esperientzia oso latza izan zen, baina ez du suposatu niretzat itzal ilun bat», adierazi du Asier Huegunek

09.10.12 - 01:15 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

0 Comentarios | **Twitter** 1 | **+1** 0 | **Compartir** | **Recomendar** 8

0 votos

Asier Huegun. Orain, izen-abizen horiek esanda, inor gutxi jabetuko da zertaz ari garen, baina 2003an egunkariko izenburu asko bete ziren Donostiako Parte Zaharreko gizon hau zela-eta. 74 egun eman zituen Kolonbian ELN-ek bahituta, beste sei lagunekin batera. Gerrilariak askatu ondoren, etxera itzuli zenean, prentsaurrekoa eman zuen, eta bukaeran kazetariari esan bakea nahi zuela eta, mesedez, ez deitzen ibiltzeko. Baina sei bat hilabeteren ondoren, Euskadi Irratiko Gari Udabe kazetariarekin harremanetan jarri zen eta testigantza-liburua osatzeari ekin zioten biek batera. Atzo aurkeztu zuten emaitza.

Bahituta zegoela, Asierrek eguneroko bat idatzi zuen. Egia esateko, bahiketa baino lehenago hasia zen koaderno horretan idazten. «Bahitu nindutenean, lehenengo egunetan ez nuen ezer idatzi. Baina gero bai. Inongo pretentsiorik gabe. Bahitzaileei galdetu nien ea ahal nuen egunerokoa idatzi, eta baietz, gainera haietako batek esan zidan egunen batean famatu bihurtuko nintzela», esan zuen Huegunek atzoko aurkezpenean.

Gero, etxeratu ostean, Huegun saiatu zen eguneroko ohar horiek garatzen, «baina segituan konturatu nintzen ni ez naizela idazlea. Ondoren, Gariren eskaintza etorri zenean, animatu egin nintzen eta ekin genion».

Gari Udabe, berriz, Euskadi Irratiko 'Faktoria' irratsaioaren asteburuko emanaldietarako ari zen orduan lanean. Egun batean, Hueguni elkarrizketa egin ondoren, kafe-makinara joan eta bigarren 'elkarrizketa' bat egin zuten. Han erretako adiskidetasunak gaur arte iraun du.

Ez da lan erraza izan. Udabek 30 orduko grabazioak egin zizkion Hueguni eta material haietatik liburu-berbetsio bat baino gehiago atera ziren. Txalapartako Mikel Soto editorearekin elkarlanean, azkenean oraingo hau hobetsi zuten. Egunez egun dago egituratua bahiketa garaiko testigantza. Eta ez beti, baina hainbat egunetan, irakur daitezke egunkariak orduan emandako izenburuak. Honenbestez, irakurleak konpara dezake «hemen» esaten zutena eta bahituak bizi zuena.

«Esperientzia gogorra izan zen, oso latza, baina ez du suposatu niretzat itzal ilun bat. Eta karpeta itxi dut. Oso kontziente nintzen nora nindoan eta horrelako zerbait gerta zitekeela. Gai sentitzen dut neure burua orduko hartaz hitz egiteko», esan zuen Huegunek atzokoan. Elektrikari ikasketak egin ostean, gaur egun Errenteriako enpresa batean ari da lanean eta hiru alabaren aita dugu.

Liburuko azken atalean, elkarrizketa labor bat dago, Garik Asierri egina. Han dioenez, beste bahitu batekin, Reini emakume alemaniarrekin, jarraitzen du harremanetan, telefonoz edo Internetez. Eta bahitzailetako batekin ere ba omen du harremanik, Internet bidezkoa. Antonio du izena, orduan ELNko buru politikoetako bat zen, baina gaur egun talde hura utzita dago.



Lankideak. Gari Udabe kazetaria eta Asier Huegun, atzo. :: MICHELENA

VÍDEO